2. GAIA: egitura

2.1. Hizkuntzaren aldaerak
2.2. Hizkuntza estandarra: Euskara Batuaren beharra
2.3. Araua: definizioa eta arau motak
2.4. Euskararen kalitatea
2.5. Arauak

1

2. 5. Arauak

2.5.1. Interneteko baliabideak
2.5.2. Ortotipografia
2.5.3. Ahoskera
2.5.4. Morfosintaxia
2.5.5. Hiztegi batua

2

2.5.1. Interneteko baliabideak

Euskarazko ahozkoa eta idatzizkoa lantzeko, hobetzeko eta aberasteko gune lagungarriak: estiloa, gramatika, zalantzak, idazki-ereduak, software eta pluginak, etab.

3

Hainbat esteka dituzten kontsultaguneak

- **Xabier Alberdiren orria:** Euskaltzaindiaren araugintza, corpusak, gramatika eta idazkuntza, testu eta idazkiak, hiztegiak, terminologia, kontsultaguneak, bilatzaileak, softwarea
- **Euskaljakintzako orria:** Hiztegiak eta kontsultaguneak, terminologia batzordeak onartutako hiztegiak, bilatzaileak, fonetika eta ortografia, mintzaguneak, estilo-liburuak, hizkuntzarekin arazoak (orokorrak, zalantzak galdetzekoak), estiloa (antolatzaileak, idazteko aholkuak, ereduak), hizkuntzaren aberastasuna (esamoldeak/lokuzioak, atsotitzak, ahozko erdarakadak, mota ezberdinetako esaldi eta esapideak), perpausa eta bere osagaiak, deklinabidea, aditza, literatura, aldizkariak, berriak, atariak, mulitmedia, aisia eta jokoak, ikastaroak, blogak, ezinbesteko guneak, baliabide-didaktikoak, hizkuntza eskubideak, etab.
- **EHULKUko kontsultagunea:**
  - Euskararen erabilera orokorra (**loturak):** euskaltzaindia, EIMA, EHU
  - Espezialitateeetako terminologia gune batzuetarako **loturak**: hiztegiak, termino bankuak, kontsulta zerbitzuak…

4

Hiztegia.net

- Hiztegi orokorrak: elebakar eta elebidunak
- Sinonimo hiztegiak
- Herriz herriko hiztegiak
- Entziklopediak
- Gaikako hiztegiak
- Corpusak
- Erdarazko hiztegi batzuk
- Softwarea: elebila, **euskalbar** (EHULKU-n), euskarazko software deskarga (xuxen, itzulpen-tresnak, office...)
- Kontsultak: loturak (Azpidazki, duda muda, zientzia.net, Jagonet, Xuxen zuzentzailea, terminologia eta kontsultak).

5

Euskararen errektoreordetza (EHUko kontsultagunea)

Ehulku

- Euskararen erabilera orokorra (**loturak):** euskaltzaindia, EIMA, EHU
  - **EHULKUren aholkuak**
- Espezialitateeetako terminologia gune batzuetarako **loturak**: hiztegiak, termino bankuak, kontsulta zerbitzuak…

Azpidazki

Jakiteko: arauak, gramatika

- Esaldiak: komunikazioetarako esaldiak, agurrak
- Idazki ereduak: dokumentuak, oharrak eta kartelak eta txantiloiak.

Ehutsi

- Zalantzak, ariketak eta itzulpenak (zuzenketekin): aditza, IS eta deklinabidea, perpaus bakuna, perpaus elkartuak eta hiztegia eta zenbait hitzen erabilera.

Bestelakoak: Ereduzko Prosa Gaur, Bilaketak (terminologia eta itzulpenak) EHU-ko izendegia, Gradu berrien euskarazko izenen zerrenda.

6

Euskara institutua (EHU)

- **Gramatika:**

  Sareko Euskal Gramatika (SEG)
  - Gramatika: hiztegia, morfosintaxia, euskara eta gizakia, euskara eta gizartea, hizkuntzalaritza aplikatua, fonetika eta fonologia, euskararen historia
  - Zalantzen txokoa
  - Bibliografia

  A brief grammar of euskara the Basque Language (Laka, 1996)

  Datiboa hiztegian (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010)

  Kalkoen behatokia
- **Corpusak:** Egungo testuen corpusa (ETC), Ereduzko prosa gaur (EPG), Ereduzko prosa dinamikoa (EPD), Goenkale corpusa, Pentsamenduaren Klasikoak corpusa, ZIO corpusa, Zuzenbide corpusa
- **Hiztegiak:** Zehazki, Hiztegi Batua Euskal Prosan (HBEP), Lexikoa ATzo eta Gaur (LAG), Egungo Euskararen Hiztegia (EEH), Euskal Hiztegiaren Maiztasun Egitura (EHME), Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH).
- **Jardunaldiak:** Terminologia Jardunaldiak (2002, 2005, 2008, 2010, 2013)
- **Besterik:** klasikoak bilduma, Euskal Literatura Itzuliaren katalogoa (ELI), testutik ahotsera, lexikoa (EIB-ren glosarioa, euskal testuetako glosarioa), ikasmaterialen sare argitalpenak, estekak (hainbat gunetarako loturak)…

7

Euskaltzaindia

Hizkuntza baliabideak:

- Hiztegiak eta corpusa (batzuk):
  - Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)
  - Hiztegi Batu(oinarridun)a (HB)
  - XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa
- Gramatika: EGLU, EGLA, *Morfología Vasca*, Euskal aditz batua
- Arauak
- Jagonet galde-erantzunak → zalantzak argitzeko

Beste batzuk: dialektologia, onomastika, literatura, euskararen sustapena, argitapen elektronikoak (*Euskera*…).

8

Eusko Jaurlaritza

- Itzultzaile automatikoa
- Euskarazko softwarea deskargatzea
- Terminologia banku publikoa (EUSKALTERM)
- Euskarazko tesiak
- Hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua (ELEBIDE)
- Inkesta soziolinguistikoak

9

HAEE/IVAP

Argitalpenak

- *IVAPeko estilo liburua* (pdf, 7 Mb) 2005
- *Libro de estilo del IVAP* (pdf, 3 Mb) 2005
- Galdezka, (pdf, 1 Mb) 2003
- *Zalantza-dantza* *(pdf*, 180 Kb) 2000
- Komunikazio elektronikoa. IVAPen gomendioak web-orriak idazteko (pdf, 6 Mb) 2013

10

EIMA-ko estilo-liburuen bilduma (EJ):

- Ahoskera [2014] (pdf, 417 KB)
- Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak [2014] (pdf, 1,60 MB)
- Zientzia eta teknikarako euskara arautzeko gomendioak [2011] (pdf, 1.304 KB)
- Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak [2011] (pdf, 1.564 KB)
- Estandarizatu gabeko solasak: nola eman ikasliburuetan [2009] (pdf, 590 KB)
- Letra larriak erabiltzeko irizpideak [2008] (pdf, 1 MB)
- **Onomastika [2005]**
- Onomastika (pdf, 869 KB)
- Izen-zerrendak (pdf, 1.768 KB)
- Kalko okerrak [2005] (pdf, 616KB)
- Ortotipografia [2004] (pdf, 532KB)

Zalantza-dantza (HAEE/ IVAP): zalantzak alfabetikoki

11

Ikasbil (HABE)

- Egitekoak
  - Dokuteka: bideo, audio, testuak (euskara ikasteko ataza eta ariketekin)
  - Atazak (ariketak eta zuzenketak)
  - Ezagutu zure maila
  - Jolasean (jolasean euskara ikasteko baliabideak)
  - Pixkanaka (euskaraz esaldi errazak ikasteko).
- Baliabideak
  - Aldizkariak
  - Eskuliburuak: oinarrizkoak, xede berezietarakoak, murgilduz (euskara hobetzeko)
  - Estekak: hiztegiak, bilatzaileak, hedabideak, softwarea, unibertsitateak…
  - Ikastaroak
  - Hizkuntza-arauak (ohiko akats, zalantza eta arazoak argitzeko)

12

Euskal Jakintza

- EGA: azterketa prestatzeko baliabideak eta informazioa.
- Arauak: Euskaltzaindiaren arauak lantzeko ikastaroa (teoria, ariketak eta erantzunak)
- Aditza: euskal aditza jokatzeko tresna (aditzak.com), teroia (taulak etab.), ariketa orokor eta zehatzak (erantzunekin)
- Ariketak: abestiak, atsotitzak, erdarakadak, berridazketak, lexikoa, lokailuak, aditza, EGA, ortografia, sinonimoak...
- Kontsultategia: informazioa, aditza, hiztegia, laburdurak, hizkuntza aberastekoak (atsotitzak, esamoldeak, lokuzioak...), erdarakadak, estilo liburuak, idazlanetarako gomendioak, testu ereduak...
- Literatura: teoria, irkurlearen txokoa, kritikak, elkarrizketak
- Baliabideak: hainbat lotura interesgarri (hiztegiak, glosarioak, hizkuntza-zerbitzuak, terminologia...)

13

Zientzia

- Artikuluak, elkarrizketak, liburutegia, multimedia (zientzia-irratia, zientzia tb, argazki-galeria)
- Euskara teknikoa: Elhuyar Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoa, hizkuntza kontsultak egiteko gunea.

UEMA

- Merkataritza eta ostalaritza eremuak euskalduntzeko lagungarria den materiala (ordutegiak, oharrak, menuak, faktura-takoak, ordainagiriak, materiala etab.)
- Euskarazko baliabideetarako loturak: hiztegi orokorrak, gaikakoak, entziklopediak, gramatika, informatika, euskalkiak, bestelakoak…

Erabili

- Lan tresnak (hainbat lotura): hiztegiak, sare-bilatzaileak, arauak, liburutegia, fonoteka..
- Zer berri (aldizkariak): *Berri berriak, Iritzi-muinetik, Galdezka*
- Bestelako informazioa: diru-laguntzak eskatzeko, ikastaroak, itzulpenak, etab.

14

Euskarazko softwarea deskargatzeko (EJ)

- Software-lokalizazioetan erabiltzeko irizpideak
- Nabigatzailea euskaraz konfiguratzeko jarraibideak (Mozilla Firefox) (Internet Explorer)
- MS Windows XP eta Windows 7 eta MS Office 2003 eta 2007 instalatzeko gida-liburua (euskarazko interfazeak)
- Zuzentzaile ortografikoa eta hiztegien plugin-ak erabiltzeko eskuliburua

- HiztegiBar tresna: HiztegiBar IE; HiztegiBar Chrome
- Hizkuntza aukeratzeko tresna (HAT): MS Office 2003, MS Office 2007; Firefox; OpenOffice.org; Thunderbird
- Xuxen zuzentzaile ortografikoa: Xuxen Hunspell Mac; Xuxen Chrome; Xuxen IE; XuxenIV, Xuxen III EDBLko (Euskararen Datu Base Lexikala) datuekin; Xuxen II
- Bulegotika: OpenOffice.org 3.3.0; MS Office 2003/2007/2010; OpenOffice.org 2.2
- Sistema eragileak: Euslinux 2011; MS Windows 7, Vista eta XP-ren interfaze-paketea; EusLinuxDebian 2009; Mandrake Linux 10
- Hitz-zatikatzailea
- Kudeaketako softwarea: Microsoft Dynamics CRM 2011 hizkuntza-paketea; SharePoint-erako Microsoft Dynamics CRM 2011 Osagaien zerrenda; SAP 4.6c; Sugar CRM 4.2.0; OpenbravoPOS 2.20
- Plugin-ak: QuarkPress-erako hitz-zatitzailea; Elhuyar hiztegiak; UZEIren sinonimoen hiztegia; OCR 1.1; Tesseract-OCR 2.0.
- Euskararen egoera neurtzeko softwarea: Euskararen egoera neurtzeko softwarea
- Web Garapenerako Liburutegia: Miatu Erraz bilaketa liburutegia
- Ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresna: Wordfast

15

2.5.2. Ortotipografia

Egilea: Joxe Ramon Zubimendi



Ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko Aholku batzordea

"Eskola-materialen Estilo Liburua osatzea du asmo aspaldidanik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Esku artean duzun ortotipografiari buruzko liburuki hau ez da izango langintza bakarra, testuinguru zabalago horren hasierako zatia baizik. Hainbat dira euskarazko ikasmaterialen hizkuntzazko egokitasun-azterketa ahalbidetu aldera finkatu, adostu eta eguneratu beharreko hizkuntza-irizpideak. Horretan dihardu Ikasmaterialen Aholku Batzordeak" (6. orrialdea).

ESKOLAN GOMENDIO GUTXI BATZUK BESTERIK EZ DITUGU LANDUKO. LIBURU OSOA ESKURAGARRI DAGO:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf

16

Letra etzana zerbait nabarmentzeko baliabide gisa

- Enfasia emateko:
  - Lanean dagoela? Ez dira gauza bera lanean *egotea* eta lan *egitea*.
- Hizkuntzaren gainean jarduteko:
  - Beharrezkoa da, hala dagokionean, koma jartzea *eta* lokailuaren aurrean.
- Hitz edo esamolde baten esanahia emateko:
  - Haurrek *pitxitxi* esaten diote katuari.
- Hitz batek ohikoena ez duen esanahia adierazteko:
  - Polizia agertzean, bazterrera bota zuen *txokolate* puska.

17

Letra etzanaren beste zenbait erabilera

- "Letra etzanez idazten dira **argitalpenen izenak**: liburuen eta tesien izenburuak, aldizkari (egunkari, astekari, hilabetekari...) eta komiki guztien izenak, ikus-entzunezko (abesti, antzerki, film, disko, irratsaio, telesaio...) guztien izenak eta bestelako artelan (pintura, eskultura...) jakinen izenak.

  Orixeren *Euskaldunak* liburua, Mikel Amondarainen *Baliabide teknikoak gorren irakaskuntzan* tesia, *Argia* aldizkaria, *El Capitán Trueno* komikia, *Blade Runner* filma, *Goizean behin* irratsaioa..." (17. or.).

18

Letra etzanez idatzitako hitzen **deklinabidea**

- "Letra etzanez (edo lodiz edo kakotx artean) idatzitako hitzak deklinatzean, letra arruntez erantsi behar zaie aldian aldiko deklinabide-atzizkia; baita horrek "-a" itsatsiaren galera badakar ere. Ez dago marratxoa erabili beharrik bien arteko lotura egiteko, eta **marratxorik gabeko lotura hobesten da**" (19. or.).

  - Andu Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez*eko pertsonaia da Kornelio.

  - Mikel Zarateren *Euskal literatura*tik hartutako adibidea duzu hori.

  - Honako hau, ordea, *Laborantzako liburu*tik hartua da; ez *Hiztegi Batu*tik.

19

Kakotxen erabilera

- Beste norbaitek idatzitako testu **zatiren bat** geure testura **hitzez hitz** dakargunean:

  - Osaren diagnostikoari zuzena deritzogu:

  "Hizkuntzaren ezagupena ez ezik dakigun hori eskolatik kanpo erabiltzeko dauzkagun aukera urriek euskararekiko atxikimendua ahuldu, gaitasunean atzera egiten erraztu, eta erdaren aldeko joera indartzea ere badakarte".

- Argitalpen nagusiago baten zati diren artikulu eta abarren izenak

  - *Argia* aldizkariaren joan den asteko aleak dakar "Festarik behar bada" artikulua.

  - Bihar, *Goenkale* telesaileko atal berezia, "Gabon, bonbon" izenekoa.

- Hitzaldi, mahai-inguru, erakusketa eta abarren izenak

  - Euskaltzaindiaren XV. biltzarrean, Bilbon, "Euskalkiak gaur" mahai-ingurua egin zen.

  - Altxerri galerian dago Fernando Arenazaren "Begi-bihotzez" saileko margolanen erakusketa.

20

Erdal izen berezien idazkeran nahasmenak saihesteko

Adibidez: "Koikek bere liburuan azaltzen duenez...".

Nola da egilea: Koik ala Koike?

Nahasmenak saihesteko:

1. "Koike hizkuntzalariak bere liburuan azaltzen du... Koikek bi atal nagusi bereizten ditu..."

2. "Koike-k bere liburuan azaltzen du... Koikek bi atal nagusi bereizten ditu..."

21

Siglen idazkera

- Irakurlearentzat oso ezagunak izango ez badira, komeni da siglak **lehen aldiz idazterakoan izena osorik** adieraztea. Adibidez:
  - HPS (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) iaz hasi zen horrelako diru-laguntza deialdiak egiten.
  - Aldizkariak direla eta, komeni da RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) kontuan hartzea.
- Sigla eta deklinabide-atzizkia **marratxorik gabe** batzen dira, siglaren azken letra eta atzizkia berberak direnean izan ezik:
  - UEUn, hizlarietako batzuk ETBko kazetariak dira; beste batzuk, berriz, EHUtik joandakoak.
  - BBK-k aurten ere irabaziak izan dituela ohartarazi du ELAk.

22

Ordinalak

- Zenbakia letraz letra idazten bada, *-garren* idatzi behar da. Zenbakia digituz edo zifra erromatarrez emanez gero, puntu bidez adieraziko da *-garren*. Adibidez:
  - Bigarren aukera;
  - 18. arauko 2. atala;
  - Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra Bilbon eta Baionan egin zen;
  - Donostiako XXI. Zinemaldia aspergarria izan zen.
  - 7. orrialdean / 7. or.

23

Ordinalak (II)

- Ordinala (*-garren* modura zein puntu bidez) gehitu behar da zenbakiak elkarren segidan jartzen diren aldiro:
  - Ikus bigarren, hirugarren eta laugarren kapituluak.
  - Ikus 2., 3. eta 4. kapituluak.
- Ordinalari deklinabide-atzizkia eransterakoan, marratxorik gabe:
  - Aurtengo zazpigarrena du Agirretxek.
  - Sailkapeneko 14.etik 18.era bitarteko jokalariak kanpoan geratu dira.

24

Ordinalak (III)

- Dataren urtea adierazterakoan, ez erabili *-garren* eta ezta puntua ere, urtearen zifren ondoren *urte* idazten denean izan ezik:
  - 1982an (ez “1982gn”, ez “1982gn.” ez “1982.ean”)
  - 1664ko urrian
  - 2001eko abenduaren 13an
  - 1952. urtean.

25

Bi punturen ondorengo idazkera

- Bi punturen ondoren paragrafo berria hasten denean, gutun formaletako agurren ondoren, adibidez, letra larriz hasi:

  Zuzendari jauna:

  Gutun honen bidez, azken asteetan kezka iturri dugun auzi baten gaineko eskaera bat egin nahi nizuke...

26

2.5.3. Ahoskera (I)

Oñederra, 1998

- Gure arau-proposamenak eta Euskaltzaindiak plazaratuko dituen **arauak segmentalak dira**, bestela esan, kontsonante-bokalen ahoskerari dagozkie. Horrek **ez du esan nahi**, ordea, **prosodia aintzat hartu ez denik**. Alderantziz, prosodia, euskararen prosodia, euskararen prosodiak aintzat hartu direlako eta errespetatu nahi direlako, ez da azentu-eredu BAT proposatzen.

- Euskararen **prosodiaren askotasuna gorde** nahi horren ondorio da, esaterako, nafarren hizkera zainduan ere gipuzkoarron hizkeran baino diptongo gehiago onartzea (Naf. *men.dian* / Gip. *men.di.an,* biak izanik ahoskera zaindua). Bestalde, prosodiaren aniztasunaren alderdi estilistikoaren ispilu da arau batzuetan hizkera zaindutik kanpo onargarri diren ahoskerak ere aipatzea, erritmo aldaketak bizien hizkera maila aldaketekin datozelako (zainduan *egin, ezagutu* vs. arduragabean *ein, ezautu).*

27

Ahoskera (II)

- 1994ko txostenean esan bezala, idazkera bakarra izan daiteke, baina **hizkera Batua ezin da bakarra izan**: hizkera bakoitzarekin konpatiblea den Euskara Batua behar dugu, hiztunaren egoera eta behar ezberdinetarako balio duen euskara behar dugulako.
- Ahoskera arautzea ez dadila izan arau zerrenden luzatzea, hizkuntza aberatsago bihurtzeko tresna baizik. Oraintxe dugu egokiera Euskara Batua hiztunen baliabide, euskalkien maila goren eta, horrela, errejistro zaindu baina bizi bihurtzeko. Guztion gogo on eta malgutsuna beharko da horretarako.
- EBAZ

28

EBAZ

- Arantzazuko Biltzarrean: Euskara Batua euskara idatzirako zela mugatu.
- **Ordea**, irrati eta telebista euskaldunak sortu eta hedatu eta bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea eskatu zitzaion Euskaltzaindiari:
  - Hizkera zaindua, maila jasokoa, irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolako azalpenetarako eta horien antzeko egoeretarako.
- **Halere**: ahoskera-kontuetan ohiturak aldatzea oso zaila (→ denbora beharko)

29

Zer da Euskara Batuaren ahoskera zaindua?

- **Ahozko hizkuntza estandarra** da, alegia hiztun ororen erreferentzia tresna, hizkuntzaren **maila formaletan** erabili beharko dena.
- EBAZ ez da orain arteko hizkeren ordezkotzat hartu behar, **osagarritzat** baizik.
- Ez da Euskara Batua ahoskatzeko modu bakarra eta are gutxiago, noski, euskalkiak ahoskatzeko era.
- EBAZ ingurukoaz edo irakaslearen ahoskera biziaz gainera irakatsi beharko dela eta ez haren ordez.
- On da, komunikabideek ere askotariko eredua edo eredu malgua ematea.

30

Ahoskeraren aniztasuna eta arauen malgutasuna: Arauak nola ulertu behar diren

1. Euskalkien araberakoa:
   <h>, <ia> (*agian : a.gian, a-gi-an),* <j> belare (heg.) vs txistukari (ipar.)

2. Komunikazio egoeraren araberakoa:
   Hizketa gertatzen den egoerara, gai duen edukiari, entzulearen ezaugarriei egokitu behar da.
   "Horregatik,hizketa egokia hizketa **malgua da**: ahoskerari dagokionez oso garrantzitsu da (eta erabat beharrezko EBAZak euskara aberastuko badu) ongi ulertzea euskaraz ere, beste edozein hizkuntza osotan bezala, ez dela berdin ahoskatu behar testu akademiko baten jendaurreko irakurketan eta adiskide edo senideekiko elkarrizketan, berrien mikrofono aurreko aurkezpenean eta ama eta haurraren arteko elkarrizketan. **EBAZen lekua lehenengo erabilera horietan dago ez bigarrenetan."**

31

ARAUAK: bokalak/bokal bilkurak

- **Bokalak**

I. **<a, e, i, o, u>** Idatzi bezala ahoskatu: [a, e, i, o, u]; sei bokaleko sistema duten Iparraldeko euskaretan <u>ren ahoskera biak onartzen dira ([u] eta [ü]) hala eskatzen duten hitzetan eta baita ere euskalkiaren erabilera zainduan.

- **Bokal bilkurak**

II. Bokalak bokalen ondoan daudenean ere idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduetan: *etxea* etx**ea**, *geroago* ger**oa**go, *mendia* mend**ia**, *burua* bur**ua**.

Gainera aintzat hartu behar da:

II.a. <ea, oa> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola: etx**ia**, etx**ie**; ger**ua**go, telefon**ua** eta kidekoak).

II.b. <ia, ua> idazten direnen bestelako ahoskerak egoki eta zuzen direla gainerako hizkera mailetan (hala nola, zerbait tartekatuz: mend**iya**, mend**ixa**, mendi**za**; bur**uba** eta kidekoak edo, bigarren bokala aldatuz edo kenduz: mend**ie**, mend**i**; bur**ue**, bur**u** eta kidekoak).

32

III.1. Bokal bi elkarren segidan daudenean, **lehenengoa <i> edo <u> bada,** bokal bilkura **bi silabatan** ahoskatuko da (hala nola: ab**i.a**n, soz**i.a**la, z**i.u**r). Dena den, badira hitz batzuetan **ui** diptongoak.

III.2. Bokal bilkura hauek silaba bakarrean (diptongoan) ahoskatzen dituzten **Ekialde eta Iparraldeko** euskalkietako hiztunengan **hizkera zaindutzat** hartuko da ahoskera hori.

IV. Bokal biren artean <h> idazten denean, <h> ahoskatzen ez den euskalkietako hiztunek ere **bokal bakoitza silaba batean** ahoskatzera joko dute hizkera maila zainduan (hala nola: z**a.ha**rra; n**a.hi** du; b**i.hu**rturik; **a.hu**la; b**e.hi**).

33

ARAUAK: kontsonanteak/kontsonante bilkurak

- **Kontsonanteak**

V. Idatzi bezala ahoskatuko dira hizkera maila zainduan
<b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz, z>

1. **<g>** <e> eta <i> bokalen aurrean beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar da ahoskera zainduan behintzat (hala nola *geologia)*. Azken orduko **maileguetan, salbuespenak banan-bana markatuko dira**. Esaterako, dagoeneko onartua dugun *gin* (edaria).

2. **<s, z>** eta **<ts, tz>** Hizkera zainduenetarako pare hauek **bereiztea hobetsiko da**. Bestalde **<z> euskaraz beti** (eta areago hizkera zainduetan) **zistukaria da** eta gaitzetsi egin behar da gaztelaniazko ahoskera hortzartekoa (gaztelerazko *zapato* hitzaren lehen kontsonantea, alegia). Beraz, *eskizofrenia* hitzaren lehen eta hirugarren kontsonanteak zistukariak dira (bata apikaria eta bestea bizkarkaria); halaber *soziologia* hitzaren lehena eta bigarrena. 34

3. **<b, d, g, r>** bokalartean gertatzen direnean, hurrenkera honetan handiagotzen den oparotasunaz desager edo alda daitezke hizketa arduragabean (hala nola: *ari naiz* ai naiz, *horiek* (h)oiek, *egon* eon, *edan* ean, eran, etab.). Ahoskera horiek erabat egoki eta bidezko dira gainerako hizkera mailetan, baina **hizkera zainduan bokalarteko kontsonanteak ahoskatu egin behar dira**.

4. **<r, rr>** euskaraz beti (eta areago hizkera zainduetan) hortzobikari dira eta **gaitzetsi egin behar da frantsesezko ahoskera ubularra** (frantsesezko *rue* hitzaren lehen kontsonantea, alegia).

35

VI. <h> Letra hau hostuna den **Iparraldeko euskalkietako hiztunek idatzi bezala ahoskatuko dute** hizkera zainduan. Letra hoskabea den **Hegoaldeko euskalkietako** hiztunen ahoskera zainduan ere <h> **ez da ahoskatuko.** Letra horren **mututasunaren salbuespen bakarra** Hegoaldekoen ahoskeran *zihoan, zihoazen* bezalakoetan gertatzen da, hor **<h> [x]** belarraz ahoskatzen delarik (gaztelaniazko *jamón* hitzaren lehen kontsonanteaz, alegia).

<h>az esanak berdin balio du <ph, th, kh> hoskeretarako: erabat egoki da ebakera hasperenduna halakoa duten Iparraldeko euskalkietako hiztunengan (hala nola *eperra* epherra eta kidekoak).

36

VII. <il, in> letra bilkura hauek <(i)ll> eta <(i)ñ> (hala nola: *mila* m**ill**a edo *mailua* ma**ll**ua, *bina* b**iñ**a edo *baino* ba**ñ**o) ahoskatzen diren euskalkietako hiztunengan bustikuntza hori ahoskera zainduan ere egoki da (ahoskera zaindua <ll> —m**ill**a— da eta ez <y> — m**iy**a—). **Bustikuntza hori ez duten euskalkietako hiztunengan**, noski, **bustidurarik gabea** izango da ahoskera zaindua ere (hala nola: *mila* m**il**a edo *mailua* ma**il**ua, *bina* b**in**a edo *baino* ba**in**o).

37

VIII. <j> letraren euskarazko ahoskera **oinarrizkoa <y>** da eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera oro har. Halaz ere eta beraz:

VIII.1. <j> hitz hasieran <y> ahoskatuko da (hala nola *jateko* yateko, *jokalariak* yokalariak).

Badira [x] belarraz ere ahoska daitezkeen hitzak. Hitz horietako batzuk hizkera maila zainduetan gertakortasun urrikoak dira, beste batzuk (*Heg.* marka daramatenak) Hegoaldean erabiltzen dira (hala nola *jertse, jipoi, jira)*.

VIII.2. <j> hitz barruan gertatzen denean, <y> izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko **[x] belarra** (gazt. *jamón)* eta Iparraldeko **<z> sabaiaurrekoa** ere (fr. *jambon)* onartzen dira hizkera zainduan *garaje, ijito* bezalako hitzetan.

38

IX.1. <x> Ahoskera sabaikaria du lehengo euskal hitzetan: *xagu, xoxo, Xabier.*

IX.2. <x> Maileguetan bokalartekoa <ks> ahoskatzea hobesten da hizkera zainduan (hala nola: *sexua* seksua, *taxian* taksian, *faxez* faksez). Hitz amaieran oso gutxitan agertzen da eta hitz bereziak dira. Horietan ere [ks] ahoskera egin daiteke.

39

Kontsonante bilkurak

X. <zb, zd, zg> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren ondorengo <d> kontsonantea (aditz formen hasieran agertuko dena) **ahoskabe ebaki behar da** (hala nola *ez da:* e**zt**a). *Ez* adberbioaren ondorengo <b, g> kontsonanteak ere ahoskabe ebakitzea hobesten da (hala nola: *ez gara:* e**zk**ara; *ez bada:* e**zp**ada). Hortik kanpo ere <z> eta <b, d, g> ahoskeran biltzen diren guztietan **ahoskabetzea onargarria da** hizkera maila zainduan ere.

XI. <zz> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren azkeneko <z> kontsonantea eta ondorengo <z> (aditz formen hasieran agertuko dena) batera ebaki behar dira **afrikatua osatuz** (hala nola: *ez zara:* e**tz**ara; *ez zetozela:* e**tz**etozela; *ez zenion:* e**tz**enion; *ez zuen:* e**tz**uen).

XII. <nz, lz, rz> eta **<ns, ls, rs>** Letra bilkura horietako zistukaria (<z, s>) **afrikatu** (<tz, ts>) egin ohi da euskaraz (hala nola unibert**ts**itate, Fran**tz**ia, falt**s**ua). **Hitz mugan** ere ordezkatze hori egiten den euskaretan **afrikatzea onartzen da** ahoskera zainduan (hala nola *esan zuen:* esan**tz**uen; *eman zion:* eman**tz**ion).

XIII. <zn, zl, zh> Ahoskera zaindurako ere *ez* adberbioaren ondoren <n, l, h> kontsonantez hasitako aditz formak agertzen direnean, euskara batzuetan <z> ez da ahoskatzen. Ahoskera zaindutzat hartuko da horrelakoetan <z> **ahoskatzea eta baita ez ahoskatzea ere** (alegia, *ez naiz:* e**zn**aiz edo e**n**aiz; *ez luke:* e**zl**uke edo e**l**uke; *ez haiz:* e**z**aiz edo e**h**aiz).

40

Zer da ahoz gora irakurtzea?

- **Testu baten faltan** aurkitzen diren entzuleei irakurleak testu horren **forma edo eduki testualen komunikatzearen lana** hartzen duen ekintza da.
- Irakurleak, irakurtzen duena ulertarazteko, beste ezer baino lehen **prestaketa lana** egin behar du, bai testua aurkeztuko duen testuinguruaren, testuaren forma eta edukien analisia eta baita **ahoskerari dagozkion aukerena** ere, testuaren interpretazioa, nolabait esatearren: irakurlea da testuaren eta entzulearen arteko zubia, eta bere egitekoa transmisioa ahalik eta ondoen ziurtatzea da.
- Honek suposatzen du **egoera komunikatiboa, testuaren zailtasuna** eta **ahotsaren adierazkortasuna** kontuan hartzea.

41

Ariketa

- Zer egingo zenuke “elocutio” terminoaren definizio testua azalpen zabalago baten barruan txertatu eta esan behar duzularik, entzuleek ondo uler dezaten?
  - Gogoratu entzuleek ez dutela testua eskuartean
  - Binaka landu eta adierazi gelaurrean.

42

Testua

ELOCUTIO (In *Literatura Terminoen Hiztegia*
http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=474&lang=eu&layout=lth_detail&search=elocutio&view=frontpage)

(lat. *elocutio*, adieraztea, adierazpena)

Erretorika klasikoaren bost zatien artean hirugarrena da (*Inventio, dispositio, elocutio, memoria, actio*). Asmamen edo *inventio*aren bidez, materiala biltzen da, eta, antolatu (*dispositio*) eta gero, *elocutio* edo adierazpenaren estrategia erabaki behar da; mezua adierazteko baliabide egokiak aukeratu behar dira; *electio* egin behar da, hitzak aukeratu eta edergarriak ere bai (tropoak eta gainerako baliabide erretorikoak); gero, sintaxia eta erritmoa antolatu behar dira, esaldiak behar bezala ipiniz (*compositio*). *Elocutio* da erretorika klasikoan ongi mintzatzeko artea (*ars bene dicendi*). Erretorika klasikoaren zatirik garrantzitsuena bihurtu zen, eta mintzaira artistikoa zorrotz landu zuen, tropoak erabiliz (metafora, esate baterako), edo hedatze prozedurak (pleonasmoa, adibidez), nahiz kenketa (elipsia), nahiz lekuz aldatzea (hiperbaton) eta abar. Entzulearen arreta erakartzeko baliabideak dira, hura txunditurik uzteko helburuarekin. Ongi mintzatu behar horren ezaugarri batzuk hauexek dira: zuzentasunez eta oinarriarekin mintzatzea (*puritas*), argi mintzatzea (*claritas*), kontzeptuak zorrotz eta hizkuntza landuz adieraztea (*sententiarum ornatus, verborum exornatio*) eta dotorezia (*concinnitas*). (...) Ikus ERRETORIKA. [J. K. I.]

43

2. Lanketarako proposamena

- Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen hiztegi*ra jo duzu eta jaso duzun definizioa landu behar duzu ahoz gora irakurtzeko moduan ahozko azalpena egiterakoan.
- Pentsa ahozko azalpena egiten ari zarela eta *elocutio* terminoa azaltzea komenigarria iruditu zaizula.
- Ondoan aurkituko dituzun puntuak landu binaka eta egin irakurketa gelaurrean.

44

Jarduera osoari begira

- Azalpena ematea helburu duen komunikazio ekintza zabalagoan kontzeptu jakin bat definitzea erabaki duzu, beraz, **komunikazio ekintza nagusi horri lotzea, justifikatzea komenigarria da**. Adieraz ezazu hitzez txertaketa hori ondoko bi momentu hauetan:
  - Txertatutako definizioaren **sarrera gisa:** definizioari sarrera bat egin, nahiz eta irudizkoa izan ariketa, asma ezazu edo gutxienez aipatu “komenigarria iruditu zait kontzeptu honen esanahia argitzea…e.a.”; nora jo duzun definizioa bilatzera, e.a.
  - Txertatutako definizioaren **bukaera gisa:** azalpenaren testu nagusira itzultzeko loturaren bat egin, galdetu ulertu den… “behin kontzeptua argituta buelta gaitezen gai nagusira…e.a.”

45

Keinuak

- **Gorputz, soin eta aurpegiko keinuak** komunikazio egoerak eskatzen dituen jokamoldeetara egokitzen ikastea komeni da. Gorputzaren keinuek, txikienek ere, komunikatu egiten dute eta komenigarria da hauek borondatez kudeatzea. Keinu hauek nahi gabe egiten dira jendaurrean aritzeko ohitura landu ezean eta komunikazioa eragotzi dezakete.
- **Begirada:** testua ahoz gora irakurtzen duzun momenturen batean entzuleak begiratuko dituzun erabaki eta markatu testuan.
- **Eskuak**: Eskuen mugimendua, zerbait eskuartean izango duzun… hausnartu eta erabaki
- **Burua- Gorputza**: non eseriko zaren edo nora lekuz aldatuko zaren, zein postura, mugimendu komenigarria izango den egitea aldez aurretik planifikatu. Arbelan definizioa, hitzen bat… idaztera mugituko zaren, etab.

46

Deszifratzeari lotutako irizpideak

- **Irakurketaren jarioa**: entseatu eta planifikatu irakurketa. Zatiren batzuk ahoskatzeko zailak iruditzen bazaizkizu, behar diren moldaketak egin ditzakezu (zerrendatzeak nola irakurri, hitzen bat ordezkatu, e.a)

- **Ahoskera**: EBAZ-en araberako ahoskera landu. Ahoskera osatzen duten indarra, azentua eta abar ere landu ditzakezu. Garrantzia azpimarratzeko, hasiera markatzeko… indar gehiagorekin zer edo zer nabarmentzea eta antzekoak landu ditzakezu.

47

Testuaren egiturari lotutako irizpideak

- **Etenak:** dena *lehenbailehen* esateak ez du proposatu dugun komunikazio egoeraren helburua betetzen, hau da, entzuleak ahoz gora esaten ari garen testua ulertzea. **Planifikatu** testua ahoz gora irakurtzerakoan **egingo dituzun etenak**, norberari arnasa hartu eta batez ere entzuleak jarraitzeko moduan.

- **Intonazio adierazkorra:** arreta bereganatzeko, interesa markatzeko, letra etzan eta parentesien esanahia interpretazeko, e.a. landu eta planifikatu.

48

Irakurketarako erabiliko den testua

- Ahoz gora irakurketa laguntzeko erabiliko duzuen idatzizko testuan, **aurretik landu dituzuen elementu guztiak markatzea komenigarria da**. Entseatzean, zuzenketak ere markatu.

49

2.5.4. Morfosintaxia

Hitz elkarketa eta *-a* organikoa

50

Hitz elkarketa zer den

- Hizkuntzan autonomia duten bi hitz elkartzen dira unitate bat osatzeko: *anai-arrebak*
- Bigarren hitza **burua** da. Elementu nagusia da, kategoria lexikala markatzen du eta funtsezko esanahia ekartzen:

  Zahar-<u>etxe</u> → (i) izena da eta (ii) etxe mota bat da
  Izena

  Irri <u>egin</u> → (i) aditza da eta (ii) 'zerbait egiten da'
  Aditza

  baina ez da beti hala:

  Mutilzahar, eguberri, zorion, neskazahar, udaberri, abelgorri

51

Elkarketa bide desberdinak

1. Elipsidunak:

(i) elkarketa kopulatiboa (*eta* isildua da): *seme-alabak, txuri-urdinak*

(ii) elkarketa posesiboa (*-dun* isildua da): *mutiko hori ilegorria da*

(iii) menpekotasunezko elkarketa: *lurrikara (lurraren ikara), gau-ainara (gaueko ainara)*

(iv) esaldiaren elipsia: *plazagizona*

2. Elipsigabeak:

(i) justaposiziozkoa (izen+ adjektibo): *udaberri, neskazahar*

(ii) onomatopeizkoak: *dinbi-danba, kili-kolo, ttipi-ttapa*

(iii) aditz-lokuzioak: *irri egin, lokartu*

52

Nola idatzi? (I) (25. araua)

- **Bereiz** idatzi **<u>behar</u>** direnak

- ***Egin, eman, hartu* eta *eragin*** aditzekin osatzen diren hitz elkarketak
- ***Etxez etxe*** moduko bikoiztapenak
- Bigarren osagaia ***bila, eske***, edo, ***falta*** duten elkarketak
- Lehen osagaia ***erdal, euskal, giza*** eta ***itsas*** duten elkarteak, ihartuak ez diren neurrian: *euskal herria, euskal musika, erdal mundua, giza zientziak, itsas lore*
- Lehen osagairen amaierako *-a* galtzen denean oro har: *haragi saltzaile…*

53

Nola idatzi? (II)

- **Marratxoarekin** idatzi **<u>behar</u>** direnak

- *Gorri-gorria* moduko **bikoiztapen indargarriak**: labur-labur, adi-adi, ozta-ozta, alfer-alferrik, bihotz-bihotzetik, banaka-banaka, aldian-aldian, astiro-astiro...
- *Seme-alabak, zuri-gorri,* moduko **elkarketa kopulatiboak**: galde-erantzunak, negar-zotinka, joan-etorri, gutxi-asko...
- *plisti-plasta* bezalako **onomatopeiak**: barra-barra, plisti-plasta, zehatz-mehatz, duda-muda, tirriki-tarraka, mara-mara, kili-kili, kili-kolo...
- **Hainbat leku-izen**: Ezkio-Itsaso, Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Etxarri-Aranatz, Ainhize-Monjolose...

54

Nola idatzi? (III)

- **Loturik** idatzi **behar** direnak

- Aditzoina + izena moduko elkarketak: *jantoki, garbigela, jatetxe, idazmakina, jarleku*
- Aditzoina + izenondoa moduko elkarketak: *irakurtezin, onartezin, irakurgaitz, sinesgaitz, aldagaitz, sinesgogor*
- Bigarren osagaia ***-gile, -zain, -zale, -gabe***, edota ***-gintza, -za(i)ntza*** duten elkarteak: *langile, baratzezain, haurtzain, euskaltzale, musikazale, lotsagabe, hargintza, erizaintza*
- Bigarren osagaia ***-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -kide, -(k)ume, -orde*** duten izen elkarteak: *elkartekidea, arkumea, lehendakariordea, itsasgizona, iraganaldia, enpresaburua*
- Lehen osagaia ***aurre-, azpi-*** eta ***gain-*** duten izen elkarteak: *azpiegitura, aurreiritzia*

55

Nola idatzi? (IV)

- **Marrarekin** edo **marra gabe** idatzi **ahal** direnak: **izen + izen elkarketak**

- *Eguzki lore, eguzki-lore* moduko hitz elkartu arruntak
- *Kale garbitzaile, kale-garbitzaile* moduko sintetikoak

56

***a* organikoa** zer den

- Euskal hitz batzuk ***a*** letraz bukatzen dira; amaierako ***a* berea dute**: *anaia*, *gauza*, *kultura*, *bidaia*, *maila*
- Gainerako hitzek beste edozein letra daukate amaieran, baina *-a* artikulua ere har dezakete (adib., *etxe* --> *etxea*)
- **A** berezkoa duten hitzak oso-osorik idatzi behar dira: *bi anaia*, *edozein gauza*, *kultura guztietan* eta abar

57

- Hiztegietan bukaerako *a*-rekin agertzen dira *a* berezkoa duten hitzak.

- Halaber, deklinatzean gorde egin behar da *a* hori, baina bada bukaera aldatzeko lege fonetiko bat:

  A+E=E
  Alaba + -EN = alab**EN**

58

a berezkoa duten hitzak

1. Banakako hitzak (banan-banan buruz ikasi behar dira edo hiztegira jo behar da informazioaren bila).

2. Zenbait udal-izen: *Azpeitia, Barrundia, Ermua*...

3. Atzizki edo amaierez osatutakoak.
(Zerrenda Moodle-n dago)

4. Jatorrizko erdaran *a* letraz bukatutako hitz guztiak: *justizia*, *ironia*, *finantza*, *ekonomia*, *kultura*, *literatura*, *enpresa*, *teknika*, *filosofia*, *garantia*, *hierarkia*...

59

Berezko *a* noiz galtzen den

- ***A*** berezkoa duten hitz batzuek, hitz-elkartearen lehen osagaia direnean, *a* gal **dezakete**. Ondokoak dira:

  1. *-ia* bukaera duten hitzak: *biologi azterketa*, *geologi irakaslea*, *pedagogi berrikuntza*, *ortografi arauak*, *erreferentzi puntua*, *diplomazi falta*, *bidai agentzia*, *Filosofi Fakultatea*, *Euskal Autonomi Erkidegoa*...

  2. Eliza, **burdina**, **hizkuntza**, **kultura**, **natura** eta **literatura** hitzak: *eliz agintariak*, *burdin fabrika*, *hizkuntz gaitasuna*, *kultur ekintza*, *natur zientziak*, *literatur tradizioa*

60

- Bi multzo horietako hitzak hiru eratan idazteko aukera dago hitz-elkarketan:

  a)Berezko -a kendu eta marratxorik gabe: *bidai agentzia*, *kultur ekintza*

  b)Berezko -a-z eta marratxoz: *bidaia-agentzia*, *kultura-ekintza, biologia-azterketa, filosofia-irakaslea*

  c)Berezko -a-z eta marratxorik gabe: *bidaia agentzia*, *kultura ekintza, biologia azterketa, fiilosofia irakaslea*

- **A** berezkoa duten gainerako hitzek ez dute sekula galtzen: *trebakuntza-eskola, irakaskuntza-programa*

61

2.5.5. Hiztegi batua

62

Hiztegi batua: zergatik?

- *Igurtzi, igortzi, igorztu, igutzi, iguzi, igotzi, idurtzi, idortzi, iurtzi, iortzi, iyortzi, egortzi, egurtzi, egurtsi*
- *Edeki, edegi, ereki, ideki, idigi, idiki*
- *Dokumentu, dokumento, dokument*
- *Inozente, inozent, enozent, inuzente, inuxente*
- *Doktrina, dotrina, irakaspen, ikasbide*

63

Hiztegi batuaren lehen urratsak (I)

- Arautze prozesuaren lehen urratsak: euskara batuaren ortografia eta morfologia (deklinabidea eta aditz jokoa) finkatzea
- Hiztegia:
  "Beharrezkoa dugu, bederen, hiztegitxo bat, ia ortografiarekikoa huts-hutsik, nahi-ta-ezko badu ere hitzen esan-nahia laburzki adieraztea, zertaz ari den jakin dezagun" (Mitxelena 1968)

64

Hiztegi batuaren lehen urratsak (II)

- 1969: *Batasunerako hiztegia,* oinarrizko zerrenda bat
- 1970: *Batasunaren Kutxa* (Euskal Idazleen Elkartearen izenean, Arestik eta Kintanak egina)
- Ordutik aurrera, hiztegi orokor guztiak batuari so eginak dira
- Nomenklatura normalizatzen
  - forma edo idazkera finkatzea
  - aldaerak eta sinonimoak hobestea
  - maileguak
  - hitz berriak

65

Hiztegi Batuaren arautzea (I)

- 90. hamarkadan, Euskaltzaindiak hiztegi batua finkatzeari ekin zion (FORMA nagusiki)

" Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen *forma* egokiaz ari dena. Ez da hori harritzekoa, arautze bidean gertatzen diren hizkuntza guztiek urrats hori egiten baitute lehenik" (HB, *argibideak*)

66

Hiztegi Batuaren arautzea (II)

- Irizpide erabakigarriak:
  - Tradizio idatzia
  - Egungo **erabilera**
  - Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko **hizkuntza-batasuna** (euskaldunak batzen dituen formak hobetsi)

67

Hiztegi Batuaren arautzea (III)

- Hiztegi batuaren abiapuntuak:
  - Euskaltzaindiak berak lehenago eman dituen hiztegigintzako zerrendak (besteak beste "Euskal hitzak zein diren", "Antzinako 2000 bat euskal hitzen forma batua", "Hilabeteen izenak"…)
  - Tradizioko hitzak (*Orotariko Euskal Hiztegia*): corpus bera baliatzen Euskaltzaindiak 1995az geroztik HBa egiteko

68

- XX. mendeko hitzik erabilienak (*Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*), *Maiztasun Hiztegia* (Sarasola, 1983)
- 1977-1979: *Euskal hiztegi arauemailea* (Sarasola)
- + forma berriagoak, osaera zuzenekoak, premia bati erantzuteko egokitzat jo direnean

69

Behin-behineko lana

“Lehenagoko zerrenda guztiak berrikusi nahi izan ditu Euskaltzaindiak, izan duten onarpen-maila neurtu, eta, gaur dugun informazio zabalagoaren argitan, berretsi nahiz beste formaren bat proposatuz. Hiztegi Batuko hitzen zerrenda **hurrengo pasaldietan osatzekoa da**: beraz, ez da pentsatu behar zerrendan azaltzen ez diren hitzak batasunerako egokiak ez direnik; **aipatu iturrietan etorri ez direlako ez daude zerrendetan**.”

70